



Paddy Rekaldek Bilboko Zazpikaleetan aurkeztu zuen atzo bere liburu berria, *Gatzaka gunea* liburu dendan. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Mendekuaren soinu banda gozoa

Bilbon kokatu du Paddy Rekaldek 'Ragga-ragga dator gaua' bere bigarren eleberria

MIKEL CARRAMIÑANA
Bilbo

Txirene Irrati librearen arratsaldeko irratsaioan Juliantxu entzulearekin ari da solasean esataria: «Gran Via, Guggenheim eta Euskalduna jauregia Bilboko leku bakarrek direla uste dute gehienek... Badakizu zelan saltzen duten Bilbo berri hau». Baina bada Ibaizabaleko Itsasadarra inguratzen duen bestelako hiri bat, Paddy Rekaldek (Bilbo, 1964), noizean behin, bere liburuetako istorioetan gogora ekartzen duena. Poema erabili zuen azkenekoan iraganeko Bilbo hura berpizteko, *Bilbo dub kronikak* olerki bilduman, eta, oraingoa, eleberrira jo du *Ragga-ragga dator gaua* honetan. Hura bezala, liburu hau ere Susak kaleratu du.

Euskal literaturan ezohikoa den protagonista sortu du Deustuko idazleak nobela honetan barnarazteko: Joxan Uriarte boxeolari ohia. Bere aitaren hiletara bueltatuko da Bilbora, Galizian urte luze-tan bizi ondoren. Aspaldiko kontu ilun batzuk konpondu nahi izango ditu Joxanek eta sorterrira bueltatu den ostiral sargori horretan bere asmoak nola gauzatuiko dituen argitu beharko du.

Paddy Rekaldek berak liburuarazalean azalean erakusten duen ukabilak bultzatuko du protagonista bere bidean, «aspaldiko mendeku baten ukabilkada» baita Joxanen istorioa, bilbotarrak atzoko ageraldian esan zuenez. Zazpikaleetako Gatzaka gunean aurkeztu zuen bere liburu berria, Gorka Arrese editorearekin batera.

Ragga-ragga dator gaua irakurterraza dela uste du deustuarrak, «zentzu positiboan esanda», eta zinemarekin alderatu zuen, bi film izan baititu buruan liburua idazterakoan: *Do the right thing* (Spike Lee, 1989) eta *La Haine* (Mathieu Kassovitz, 1994). Horietan bezala, egun bakar batean garatuko da protagonistaren istorioa, «mama gorantz joango da, kolpe baten moduan». Joxanek atzerako saltoak egingo ditu egun bakar horretan, horrela izango du irakurleak boxeolari ohia biziaren berri.

Joxan ez ezik, Txirene Irratiaren irratsaioak izango dira liburuko protagonista, izan ere, irrati libre honek zabalduko albesteek Bilbon ematen diren gertaera mingarri buruz hitz egingo dute. Zehaztu ez bazituen ere, «oso egungo gaiak» jorratuko dituzte albiste horiek. Horrez gain, bigarren protagonista izatearekin batera, Txirene irratsaioak soinu banda jarririk dio liburuari.

Rekaldek musikaren falta sumatzen dio literaturari, «irakurtzen duzunaren zarata eta musika» entzun ahal izatea gustatuko litzaioke. Zinemarekiko loturak

atsegin dituela, soinu bandari garrantzitsua derituz idazle deustuarrak.

BOXEOA BILBON. Gaur egun arrotza dirudien arren, duela hamarkada batzuk «oso normala» zen Bilbon boxeo borroka ikustea. Txikitan, bere aitarekin joaten zen boxeo ikustera, «Casillan izaten ziren asko, eta, arraroa ematen badu ere, auzoetako jaietan egiten zituzten borroka, Deustun edo Rekaldek». Itsasadarrean ere, gabarren gaineko borroka antolatzen zizutela gogoratu zuen.

Liburuaren azalak boxeolari buruzko irudia agertu behar zuela hasieratik uste zuen egileak, eta, hasiera batean, Muhammad Ali-ren argazki bat agertzea pentsatu zuten. Alabaina, «istorioarekin eta Bilborekin zerikusirik ez» zuelako, baztertu egin zuten ideia. Azkenean, Gotzon Garaizabalek idazleari egin zion argazki batekin aurkeztu dute liburua, «ni ere ez naiz Joxan, baina, behintzat, bizitza eman diot». Rekalde bera agertzen da azalean, irudi lausoan, bere ukabila lehenengo planoan

Istoria bi kontatzen ditu liburua: Joxan boxeolari ohia eta irrati libre baten albisteek osatutakoa

Aurreko liburuetan bezala, Bilbo hiriri buruzko istorio ilunak eta musika izango dira ezinbesteko gaiak

ageri dela. Askok kritikatuko duten erabakia dela jakin badakiela aitortu zuen idazleak, baina «euskarazko argazkigintza gauza berrien falta sumatzen duela» gaineratu zuen, bere ustez, «argazki etnografiko gehiegi ageri baita eskal kulturaren».

Mamian ez ezik, liburu dendara hurbiltzen denari begira «estetika zaintzea» garrantzitsua dela uste du deustuarrak, eta, horretarako, «bereziak» izan behar dira liburuen azalak. Helburu berarekin, izenburu deigarria behar zuen eleberriak, horregatik, Txirene irrati-ko esatariak darabilen esapidea hautatu du.

Paddy Rekalderen bigarren nobela da *Ragga-ragga dator gaua*, orain arte, *Sex abaroa* (Txalaparta, 2000) eta *Bilbo dub kronikak* (Susa, 2004) poema liburuak, *Aizu Paddy* (AEK, 1997) eta *Whiskey koloreko gauak* (Txalaparta, 1999) ipuin liburuak eta *Rebel Mayo Colonoa* (Txalaparta) eleberria argitaratu ditu. Horrez gain, The Clash talde ezagunari buruzko saiakera egin zuen iaz, Paper Hotsak bildumarako.

Musika da, hartara, idazlearen ibilbidean behin eta berriro agertzen den elementuetako bat. Bestea, ezinbestez, Bilbo izan da. Hiriarren tapuada ezkutuak aurkituko ditu irakurleak bere liburu berrian, gizarteko gaiak nonahi ageri baitira: «etorkinen miseria, hirigintzaren espekulazioa, Bilboren izaera berria edota ziegan hilda ageri diren presoak».

Literatur itzulpengintza sustatzeko lantegia Irunen

ERREDAKZIOA
Donostia

EIZIEK antolatuta, *Idazlea itzulzaileen lantegian* deituriko topaketak egingo dituzte hilaren 24tik 27ra bitartean Irungo Ficoba era-kustazokan. Euskaratik beste hizkuntzetarako literatur itzulpengintza sustatzea du helburu lantegiak, eta aurtien Harkaitz Canoren *Neguko zirkua* liburuak *Batere valsek gabe amaituko da narrazio hau ere* ipuina aldatuko dute euskaratik hiru hizkuntzara: Katalin Totorikak frantsesera, Isaac Xubinek galizierara eta Kristin Addisek ingelesera.

Elkarlanean ariko dira itzulzaileak hiru egunez eta Canoren beraren laguntza izango dute zalan-zak argitzeko edo testuaren gaineko argibideak emateko.

Azken egunean, hilaren 27an, parte-hartzaileak mahai-inguru batean bilduko dira, esperientziaren berri emateko. Ondoren, lantegian aukeratu duten pasarte bat lau hizkuntzetan irakurririko dute jendaurrean, musikaz lagunduta.

Narrazioaren lau itzulpenak Senez aldizkarian argitaratuko dituzte ondoren.

Augustin Zubikarai oroituko du Euskaltzaindiak gaur Ondarroan

ERREDAKZIOA
Bilbo

Augustin Zubikaraiaren omenez Ondarroako Udalak antolatu dituen Lore Jokoan gitarauaren baitan, Euskaltzaindiaren Literatura ikerketa batzordeak bilera egingo du gaur goizean Ondarroako Kofradia Zaharrean. Horren atarian Patri Urkizuk aurkezpen bat egin eta Augustin Zubikarai antzerkigileaz hitz egingo du.

Bestalde, arratsaldean hainbat sari eman eta lanak aurkeztuko dituzte. Udalak deituriko musika konposizio lehiaketako saria exaequo jasoko dute Josu Elberdinek *Arzai festa* eta Jabier Iturtek *Erreka biren artean* lanengatik.

Argazki lehiaketako bi sariak Jose Maria Urrusolok Berstainek jasoko ditu *Calatrava* eta *Kirola* izeneko argazkiengatik. Ondarroa eta bere inguruak eta Ondarrutarrak sailletako sari biak irabazi ditu Urrusolok. Azkenik, Ane Iriondok eta Ainhoa Bilbaok Arrantzaren arazoei buruzko ikerketa beken akzesitak jasoko dituzte.